

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Lehen aldiz detektatu da pulsar baten transformazioa


VIRGINIAKO (AEB) Robert C. Byrd teleskopioari esker, Anne Archibald ikerlariaren taldeak pulsar baten transformazioa detektatu du, lehen aldiz historian.

Supernoben leherketen ondorioz sortzen diren neutroizko izarak dira pulsarrak. Beren buruaren inguruan bira egiten dute, itsasargi baten modura, eta irrati-uhinak emititzen dituzte. Pulsar gehienek poliki biratzen dute, segundoko hamar bira eginez gutxi gorabehera; euren eremu magnetikoak mugimendu hori balaztatzen du, geldiarazi arte, eta ondorioz hil egiten dira. Aldiz, badira azkar, hots, segundoko 100 aldiz edo gehiago, biratzen duten gutxi batzuk. Horiek ia hilezkorrak direla esan daiteke.

Pulsar motel gutxi batzuk birziklatu eta pulsar azkar bihurtzen dira. Hori gertatzeko oso hurbil dauden bi pulsar zahar behar omen dira, non bata bestearen masa bereganatzen duen.

Hain zuzen, gertaera hori da detektatu dena, eta oraingoz bitxikeria hutsa baldin badirudi ere, unibertsoa hobeto ezagutzen lagunduko digun aurikuntza garrantzitsua dela uste dute ikerlariek.

Pulsarra adierazten duen marrazkia.



Ordenagailuak arinago abiarazten

ORDENAGAILUA ERABILTZEN DUGUNOK ohituta gaude abiarazteko botoia sakatu eta gero gutxienez minutu bat edo bi zain egoten, ordenagailua erabat piztu arte. Hori konpontzeko, AEBetako hiru unibertsitatetako ikerlari talde batek garraioetan eta bankuetako kutzazainetan erabiltzen diren txartel adimentsuen teknika eraman nahi du ordenagailuetara. Txartel horietako material ferromagnetikoen informazioa berehala ematen dute, oso kontsumo txikia dute eta oso efizientzia handia.

Teknologia hori ordenagailuetara eramango balitz, horiek berehala piztuko lirake, kontsumo elektrikoa gutxituz gainera. Pixka bat falta da oraindik, baina bidea zabalik dago jada.



Gero eta irudi garbiagoak lortu ahal izango dira argazki-kamerarekin

Argazkietan zooma aplikatzean eremu batean metatzen da argia, eta gainerakoak galdu egiten du. Princeton Unibertsitateko ikerlari talde batek eszena baten elementu guztien ikusmen kalitatea berdin mantentzea lortu du. <http://ttiki.com/3727>

Trisomia 21-aren gene batzuk, minbiziaren aurkari

Trisomia 21, hau da, Down sindromea duten pertsonen bularretan, biriketan, kolonian edo prostatan hainbat tumore garatzeko arrisku gutxiago dute. Gene batzuk hirukoiztuta izateak minbiziaren gaitararen babesa sortzen omen du. <http://ttiki.com/3728>

Ibai batzuen ur-emia gutxitu da

Berotegi-efektua dela eta, Txinako, Indiako, mendebaldeko Afrikako eta mendebaldeko AEBetako hainbat ibaiak %5 eta %10 artean txikitu du bere emaria azken 50 urteotan. Hori arazo handia izan daiteke, populazio handia bizi baita ibai horien ertzetan. <http://ttiki.com/3729>



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16